




Koldo Zuazo, «Euskalkiak» liburuaren aurkezpenean. Andoni CANELLADA | FOKU

Herria” esaten dionari
“ekialdea” esaten dioten.

Sailkapena

Euskalkietako bati “Mende-
baldekoa” deitzean ere bat
datoz, baina ez gainerakoan.
“Ekialdeko” euskalkia ikus-
ten dute Zuazok zuberotarra
eta nafar-lapurtarra ikusten
dituen lekuan. Gipuzkoa
gehiena eta Nafarroa euskal-
ki berean sartu dituzte, eta
horren arrazoia ere, behar-
bada, EHHAn galdera ego-
kiak egin ez izana izan daite-
keela dio Zuazok: «Nire
emaitzen arabera, behinik
behin, Azkoitia eta Abaurre-
gaina euskalki berean sar-
tzekeo desberdinegiak dira».

Azkenik beste kontu bat-
zuk ere baditu hizpide Zua-
zok artikuluan. Haietako
bat, sailkapenen ikuspuntua

da. Sailkatzaile berriek dio-
tenez, orain arteko sailka-
pen guztiak ikuspuntu dia-
kronikoan eta gramatika
historikoaren irakaskuntze-
tan oinarritzen dira, eta be-
rena ikuspuntu sinkroniko-
an. Zuazok, ordea, uste du
Bonaparteren helburua XIX.
mendeko erdialdean egiten
zen euskara erakustea izan
zela eta, beraz, haren sailka-
pena ez dagoela ikuspuntu
diakroniko batetik eginda,
eta beste horrenbeste dio
bere lanari dagokionez. Hasi-
zenetik, adin guztietako hiz-
tunekin elkartzen dela dio,
baina gramatika eta hiztegi
lanak egiteko, gehienbat 40
eta 70 urte bitartekoak har-
tzen dituela. «Azken batean,
XXI. mende hasiera honeta-
ko euskara aztertzen eta era-
kusten ari naiz». Tarteko
hizkerak ere aipatzen ditu

Zuazok artikuluan, sailka-
pen berrian ez baita halako-
rik agertzen: «Iraganean be-
zala, lerro bakarrez bereizi
dituzte euskalkiak, eten gar-
biak eginez. Ez zait iruditzen
zuzen dabiltzanik: dialekto-
en arteko mugak hori baino
nabarragoak dira».

“Izan zirelako gara” du
izenburu artikulua amaiera-
ko ataltxo batek. Hauxe dio,
besteak beste: «Beti, edo ia
beti, izan ohi dugu aitzinda-
riren bat; sekula, edo ia se-
kula, ez gara hutsetik abia-
tzen. Bonapartek euskara
ikasteari ekin zionean, lehe-
nagoko gramatikagile eta
idazleen lanak aztertu zi-
tuen. Gu guztiok, era berean,
Bonaparteren lanetatik eli-
katu gara».

Euskalkien gaineko ezta-
baida. Arlo horren eta beste-
ren aberasgarri izan dadila.

Ikuspegia

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Gerturatu zai-
gu guri ere.
Martxoan,
urrun ikusi

genuen covid-19 gai-
tzaren eragina Urola Erdian, baina
abuztuko Azpeitiko fokuak kezka
eragin digu. Eta gertu izanik, azto-
ratu egin gara.

Kexatu gara tabernariez, ustez,
beren etekinen mesedetan, edu-
kiera mugak zorrotz bete ez dituz-
telako. Kexatu gara udaltzainez,
arauak bete ez dituzten taberna-
rien aurkako berehalako neurriak
hartu ez omen zituztelako. Kexatu
gara erizainez eta medikuez, pan-
demiagatik neurri zorrotzak hartu
eta egoerak gain hartu dienean,
gure ohiko kontsultaren bat, pro-
baren baten emaitzak edo ebakun-
tza osteko sendaketaren bat atze-
ratu digutelako.

Eta uste dut nahi gintuzten le-
kuan gaituztela. Hain justu, hori da
egoeraren kudeaketa egitea dago-
kien agintarien helburua: ardura
pertsonek garrantzia nabar-
mentzea, geure parekoa kriminali-
za dezagun. Datorrenerako otzan-
du nahi gaituzte. Aste honetan
esan du Arantxa Tapiak euskal gi-
zarteak ez duela «egoerak eskatzen
zuen eran jokatu». Eta Eusko Lege-
biltzarreko hauteskunde deial-
dia egiteko larrialdi egoera bertan
behera utzi zutela ahaztuta, abuz-
tuaren 17tik aurrera ezarritako osa-
sun larrialdian hartutako neurriak
«denbora askorako» izango direla
ere Tapiak berak esan du.

Ustez, zuhurrak izan ginen mar-
txoan; ia beldurtiak ere bihurtu ga-
ra abuztuan. Ez da harritzekoa, bai-
na, beldurraz eta haserreaz harago,
ikuspegia behar dugu orain. Egoera
kontrolpean izateko ahaleginak
egiten ari direnak eta axolagabeke-
riaz ardura herritarrengan jarri
nahi dutenak bereizteko ikuspegia,
hain justu. •